

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoak 19

## Bingen Zupiriak eta Esther Apraizek Euskal Poliziako agente izateko 643 plaza berri iragarri dituzte

- Ertzaintzarako 473 plaza eta Euskadiko 22 udaletako udaltzaingoetako 170 dira
- Ostiralean, martxoaren 21ean, irekiko da izena emateko epea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren webgunean, eta 20 egun baliodunetan egongo da zabalik

**Bingen Zupiria** Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburuak eta **Esther Apraiz** EUDELen presidente eta Derioko alkateak gaur azaldu dituzte Euskal Poliziako agente izateko lehiaketa-oposizio berriaren xehetasunak. Deialdi berri honek, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak abian jarritako seigarren deialdi bateratua denak, oinarritzko eskalako agenteen **643 plaza berri** eskainiko ditu Ertzaintzarako eta Euskadiko 22 udaltzaingo eta polizia-zerbitzuertarako.

Plaza horien kopurua handitu ahal izango da hautaketa-prozesuak irautean duen denboran plaza hutsak sortzen badira deialdia egin duen administrazio publikoetako batean. Oraingoz, **473 plaza deitu dira Ertzaintzarako eta 170 udaltzain izateko**, Euskadiko udalerri hauetan:

- |                         |                    |                                   |
|-------------------------|--------------------|-----------------------------------|
| • Abanto-Zierbena (2)   | • Basauri (3)      | • Ortuella (1)                    |
| • Amorebieta-Etxano (3) | • Bilbao (67)      | • Portugalete (8)                 |
| • Andoain (2)           | • Elgoibar (2)     | • Tolosa (3)                      |
| • Aretxabaleta (1)      | • Erandio (1)      | • Valle de Trapaga-Trapagaran (4) |
| • Azkoitia (1)          | • Etxebarri (1)    | • Vitoria-Gasteiz (48)            |
| • Bakio (1)             | • Getxo (1)        | • Urretxu (2)                     |
| • Barakaldo (12)        | • Irun (1)         | • Zarautz (4)                     |
|                         | • Lasarte-Oria (2) |                                   |

Bingen Zupiriak adierazi du deialdi partekatu horiei esker Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko udalek hasieratik bultzatzen dutela polizia-koordinazioa, elkarbizitza eta prestakuntzako eta jarduteko irizpideen homogeneizazioa sustatuz, herritarrei zerbitzu eraginkorra eta efizientea eskaintzeko. "Deialdi bateratu hauen bidez, Ertzaintzak eta udaltzaingoek eskaintzen duten zerbitzu publikoa indartzen dugu, eta gure poliziak gaur egungo gizarteak planteatzen dizkigun erronketarako prestatzen ditugu", azpimarratu du Zupiriak.

Bestalde, EUDELeko presidente Esther Apraizek azpimarratu duenez, "LEP bateratuak borondatezko tresna dira udalentsat, prozesuetan arintasuna eta eraginkortasuna irabazteko aukera ematen duena, baina, batez ere, Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko funtsezko koordinazioa indartzeko aukera ematen duena." Eta gaineratu du lankidetzak horrek "Euskal Polizia modernoa, profesionala eta oso kualifikatua" bultzatzen duela, "gure udalerrietako bizilagunekiko hurbiltasunetik eta enpatiatik zerbitzu publiko onena emateko".

### Izen-ematea eta baldintzak

Lehiaketa-oposizio berri honetan parte hartzeko interesa duten pertsonak martxoaren 21etik aurrera eman ahal izango dute izena Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren webgune ofizialean: [www.arkauteakademia.eus](http://www.arkauteakademia.eus). Bertan izango dute inprimaki ofiziala eta normalizatua, eta, gainera, oposizioko ariketak zein hizkuntzatan (euskaraz edo gaztelaniaz) egin nahi dituzten ere adierazi beharko dute.

Plaza horietako bat betetzeko aukera izateko, izangaiek honako baldintzak bete behar dituzte:

- 18 urte baino gehiago eta 38 baino gutxiago izatea.
- Batxilergoko titulua, kidekoa edo goragoko mailako beste edozein izatea.



- Kidegoaren arabera lortu nahi den plazaren baldintza guztiak betetzea.

Izena emateko epea 20 egun baliodunetan egongo da zabalik.

### **Hautaketa- eta formakuntza-prozesua**

Akademiaren asmoa da lehenengo probak, psikoteknikoak eta ezagutzakoak, ekaina-uztailean egitea, eta uda ondoren amaitzea hautaketa-prozesua proba fisikoekin eta elkarrietzeta pertsonalekin. Modu horretan, agenteek 2026. urtearen hasieran hasiko lukete prestakuntza Arkauten, eta 2026. urtearen amaieran hasiko lukete praktiketako zerbitzua.

Berrikuntza gisa, promozio honek hezkuntza-eredu berri bat izango du, curriculum 8 hilabeteko prestakuntzan bilduko duena. Horretarako, ikasleek Akademian emango dute gaua berriz ere, modu horretan, prestakuntzako hilabeteetan, ertzainen eta udaltzainen arteko kohesioa, ezagutza eta lankidetzaren sustatzeko.